




Hezkuntza baliabidea

Generoan, diru- sarreraren, adinean, ezintasunetan, orientazio sexualean, etnia desberdinetan, erlijioetan, etab. oinarritutako desberdintasunak gaur egun ere, mundu osoan zehar irauten dute. Desberdintasun hauek, garapen sozial eta ekonomiko egokia lortzea mehatxatzen dute, pobrezia-aren murriztapenean eragina dute eta pertsonen osotasun eta balio sentimenduak suntsitzen ditu.

Hezkuntza baliabide hau hiru modulutan banatzen da. Modulu bakoitzak gizartean desberdintasunak sortzen dituen zenbait arrazoi erakutsi eta azaltzen ditu, dimentsio desberdinak azpimarratuz. Moduluak independentetzat jorratu daitezke.

1.Modulua: Generoa

Gentillen testigantza (Synergie des Femmes)

- Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeen egoera zuzenean entzun eta ezagutu.
- Synergie des Femmes erakundeak egiten duen lana ezagutu, herrialdeko ekialdean orokortua dagoen sexu indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntza medikoa, juridikoa, psiko-soziala eta ekonomikoa eman, eta baita berdintasun eta justizia soziala lortzeko lan egiten duena.
- Kongoko Emakumeen errealitatea eta hauek berdintasun eskubideak lortzeko aurrera eramaten dituzten borrokak ezagutu eta hauei buruz hausnartu.

Kongoko Emakumeen testigantzen zenbait bideo:

- https://www.youtube.com/watch?v=5jHya_j_xyE&t=290s
- <https://www.youtube.com/watch?v=FvKLhxzmZig>
- <https://www.youtube.com/watch?v=gir331S89gA>
- <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/amparosanchez/>
- <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/salvados/>

Hausnarketa:

- Nolakoa da Kongoko emakumeek bizi duten egoera?
- Oinarritzko eskubide sozialak urratzen dira? Zeintzuk?
- Berdintasuna eta justizia soziala lortzeko zeintzuk dira emakume hauek egiten dituzten borrokak?

Jarduera honek, ordubeteko iraupena dauka, errealitate desberdinei buruz, existitzen diren desberdintasunak eta Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeek, transformazio soziala lortzeko burutzen dituzten borrokei buruz hausnartzeko eta kontzientziatzeko pentsatuta dago.



2.Modulu. Justizia soziala eta zerga sistema

ALBOAN eta OXFAM INTERMON erakundeek egindako RHEX bideo-jokoak, justizia soziala eta zerga-sistema gaitara hurbiltzen gaitu. Rhex denbora errealeko estrategia-joko bat da, eta **lau misio** edo zereginetan banatuta dago (ekoizpena, babesa, ikerketa eta dibertsitatearen kudeaketa). Misio horietako bakoitzak ordubete inguru irauten du, eta guztira hainbat gai lantzen dira:

- Justizia ekonomikoa; Erantzukizun fiskala; Eskubide sozialak; Migrazio-krisiak; Dibertsitate funtzionala; Ugaltze-ekonomia eta Klima-aldaketa.

Jokoan, erlategi bat irudikatzen da, eta bertan, erle erregina izango zara, beraz, zure ardura izango da erlauntzeko baliabideak kudeatzea, bertako premiak asetzeko.

- http://www.rhex.online/guides/eu/learningguide_eu.pdf
- http://www.rhex.online/guides/eu/gameguide_eu.pdf
- Online jokatzeko: <http://www.rhex.online/>
- Offline jokatzeko: <http://rhex.online/portable/RHEX.exe.zip>

Joko honen helburua, eta gida didaktikoaren asmoa ikasleekin goian aipatutako gaiei buruzko informazioa ematea eta erreferentziazko material didaktikoa eskaintzea da.

Bideo-joko hau erabiltzeko, **12 urtetik gora** izatea gomendatzen da.

3.Modulu. Oinarrizko eskubide sozialak

- Oinarrizko eskubide sozialen berri izatea, hauek baitira beharrezko elementuak pobrezia eta desberdintasunaren aurka borrokatzeko.
- Sistema fiskal zuzenak eskubide-sistemari euts diezaiokeela ulertzea.
- Gizartearen aldaketa eragiten lagun dezakeen aldetik, herritargo antolatuen zereginaz gogoeta egitea.

Proposamen didaktiko hau, **14 urtetik gorako pertsonentzat** dago zuzenduta, eta hiru dokumentu ditu, dossierra, gida didaktikoa eta jarduera desberdinak dituen txostena, non gizarte eskubideekin loturiko kontzeptu asko jorratzen diren, hala nola ongizate-estatua, demokrazia, fiskalitatea, mugimendu sozialak, ekonomia neoliberalak, hipoteka-legeak, etab.

Jarduera guztiak unitate independentetzat jorratu ahal izateko diseinatu dira. Era berean, ahalik eta gehien zaletasun eta premiak bete ahal izateko, jarduera bakoitzean hainbat metodologia proposatzen dira: grafiko azterketa, eztabaidak, jokoak, Interneten informazioa bilatzea, etab. Dokumentuak oinarrizko eskubide sozialekin erlazionaturako 8 jarduera ditu, lau egunetan zehar jorratu daitezkeenak (1,2,3 jarduerak lehenengo egunean, 4,5,6 bigarren egunean, 7 hirugarren egunean, 8 laugarren egunean) bi ordu eta erdiko saioetan.

- <http://kaidara.org/es/derechos-muy-torcidos>